

DATUAK BABESTEKO POLITIKA

© IZENPE 2024

Dokumentu hau IZENPErena da. Osotasunean soilik erreproduzi daiteke.



ALDAKETEN KONTROLA

BERTSIOA	DATA	ALDAKETAK
1.0	2018/12/04	
1.1	2021/11/26	Tratamenduak eguneratzea
1.2	2023/01/20	Izenperen tratamendu-jarduerei buruzko informazioa sinplifikatzea. Datu-babesari eta informazioaren gardentasunari buruzko araudiaren inguruko bi epigrafe berri sartzea. Eskubideak elektronikoko gauzatzeko eskura dagoen helbidea gehitu da.
1.3	2024/09/02	Aldaketarik gabeko berrikuspena.
1.4	2024/10/25	Dokumentu honen izena aldatu da.



AURKIBIDEA

1.	TRATAMENDUAREN ARDURADUNAREN IDENTIFIKAZIOA ETA HARREMANETARAKO DATUAK.....	4
2.	DATU PERTSONALAK BABESTEARI BURUZKO ARAUDIA	4
3.	INFORMAZIOAREN GARDENTASUNA.....	4
4.	INTERESDUNEN ESKUBIDEAK.	5
5.	TRATAMENDU-JARDUEREN ERREGISTROA.....	6
6.	ALDAKETAK	6



Politika honen bidez, Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Enpresa de Certificación y Servicios, Izenpe, SA enpresak datu pertsonalak nola erabiltzen dituen jakinarazten dizugu.

1. TRATAMENDUAREN ARDURADUNAREN IDENTIFIKAZIOA ETA HARREMANETARAKO DATUAK

Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa - Empresa de Certificación y Servicios Izenpe SA	
HARREMANETARAKO DATUAK	<ul style="list-style-type: none">- Beato Tomás de Zumárraga kalea, 71. zkia, 1. solairua. 01008 Vitoria-Gasteiz- www.izenpe.eus/datos- 900 840 123
DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIA	datos@izenpe.eus

2. DATU PERTSONALAK BABESTEARI BURUZKO ARAUDIA

- 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa

3. INFORMAZIOAREN GARDENTASUNA

Izenpek, bere jardueraren esparruan, askotariko tratamendu-jarduerak egiten ditu.

Jarduera horiei buruzko informazioa web-inprimakien bidez edo paperean ematen zaie erabiltzaileei, datuak bildu baino lehen. Gainera, Erabiltzaileentzako Arreta Zerbitzuaren kasuan, telefonoz jaso daitezke datuak.

Inprimakien kasuan, bi geruzatako eredu bat hartu da:

1. geruza	<ul style="list-style-type: none">- Tratamenduaren arduraduna- Xedea- Tratamenduaren legitimazioa- Eskubideak gauzatzeari buruzko informazioa
2. geruza	Helbidea: www.izenpe.eus/datos <ul style="list-style-type: none">- Interesdunen eta datuen kategoriak- Tratamenduaren helburua- Oinarri legitimatzailea



	<ul style="list-style-type: none">- Datuen komunikazioak- Tratamenduaren eragileak- Nazioarteko transferentziak- Datuak kontserbatzeko aldia- Segurtasun-neurriak
--	---

4. INTERESDUNEN ESKUBIDEAK.

2016/670 (EB) Erregelamenduak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarenak, 2016ko apirilaren 27koak, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituenak eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duenak, eta 3/2018 Lege Organikoak, abenduaren 5ekoak, Datu Pertsonalak Babestekoak eta Eskubide Digitalak Bermatzekoak, aukera ematen dute Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Enpresa de Certificación y Servicios, Izenpe, SA enpresaren aurrean eskubide hauek gauzatzeko:

- **Irispide-eskubidea:** interesdunak eskubidea izango du tratamenduaren arduradunak egiazta diezaion berari buruzko datu pertsonalen tratamendua egiten ari den ala ez eta, hala bada, datu pertsonalak irispidean izateko.
- **Zuzentzeko eskubidea:** interesdunak eskubidea izango du berari buruz dauden datu pertsonal okerrak zuzendu ditzan, eta berari buruz dauden datu pertsonal osagabeak osatu daitezzen, baita adierazpen gehigarri baten bidez ere.
- **Ezerezteko eskubidea (ahaztua izateko eskubidea):** interesdunak eskubidea izango du berari buruzko datu pertsonalak ezereztu ditzan egoera jakin batzuetan.
- **Tratamendua mugatzeko eskubidea:** interesdunak eskubidea izango du tratamenduaren arduradunak datuen tratamendua mugatu dezan, kasu batzuetan.
- **Datuak transferitzeko eskubidea:** interesdunak eskubidea izango du datu pertsonalak erabilera orokorra eta irakurketa mekanikoa duen formatu egituratu batean jasotzeko, bai eta beste tratamendu-arduradun bati bidaltzeko ere, baldin eta tratamendua automatizatua bada.
- **Aurka egiteko eskubidea:** bere egoera partikularra dela eta, interesdunak eskubidea izango du, edozein unetan, berari buruzko datu pertsonalen tratamenduaren aurka egiteko, interes publikoko eginkizun batean, ahal publikoetan edo hirugarrenen interes legitimoan oinarrituta, profilak egitea barne.
- **Banako erabaki automatizatuen objektu ez izateko eskubidea:** interesdunak eskubidea izango dute tratamendu automatizatu batean soilik oinarrituta dagoen eta beraiengan ondorio juridikoak edo antzeko ondorio esanguratsuak dituen erabaki baten objektu ez izateko, profilak egitea barne.

Eskubide horiek www.izenpe.eus/datos orrian adierazitakoaren arabera gauzatu ahal izango dira, hauen bidez:

- **Posta:** eskaerarekin batera, NANaren/AIZen kopia bat aurkeztu behar da.
- **Edo posta elektronikoa:** www.izenpe.eus/datos orrian eskuragarri dagoen aplikazioa bete behar da. Eskatzaileak ziurtagiri bat izan beharko du; ziurtagiri hori Konfiantzazko zerbitzu elektronikoaren emaila kualifikatuen zerrendan egon behar da.



5. TRATAMENDU-JARDUEREN ERREGISTROA

Erregelamenduaren 30. artikulua dio datu-tratamenduaren arduradunek eta eragileek beren erantzukizunpean gauzatu dituzten Tratamendu Jardueren Erregistro bat sortu eta mantendu behar dutela.

DBEOren arabera, tratamendutzat joko da datu pertsonalen gainean edo datu pertsonalen multzoen gainean egiten den edozein eragiketa eta eragiketa-multzo, prozedura automatizatuak erabili zein erabili gabe, hala nola: datu-bilketa, erregistratzea, antolatzea, egituratzea, kontserbatzea, egokitzea edo aldatzea, ateratzea, kontsultatzea, erabiltzea, transmisioz lagatzea, hedatzea edo irispidean jartzeko beste edozein forma, datuak alderatzea edo interkonektatzea, mugatzea, ezabatzea edo suntsitzea.

Erregistro horren xedea erantzukizun proaktiboaren printzipioan oinarrituta dago, 2016/679 Erregelamenduko funtsezko printzipioetako bat. Ikuspegi praktikotik, erakundeek aztertu behar dute zer datu pertsonal tratatzen dituzten, zer xederekin tratatzen dituzten, eta zer motatako tratamendu-eragiketak egiten dituzten; tresna horri esker, erakundeak datuak tratatzeko egiten dituen jarduera guztien ikuspegi orokorra lortzen da.

Izenpek informazio hau jasotzen du jardueren erregistroan: tratamendu-jarduera, interesdunen kategoriak, xedea, oinarri legitimatzailea, datuen kategoriak, datuen komunikazioak, tratamenduaren eragileak, nazioarteko transferentziak, kontserbazio-aldia eta segurtasun-neurriak.

Ikus www.izenpe.eus/seguridad-privacidad/

6. ALDAKETAK

Dokumentu honetako aldaketak Izenperen Segurtasun Batzordeak onartuko ditu.